




AURREZ KARGATUTAKO REKOVELLE® LUMA ERABILTZEKO GIDA (folitropina delta)


REKOVELLE® injektatzeko behar duzun materiala



ERABILI AURRETIK

1. urratsa:

- Eskuak garbi itzazu.
- Egiaztatu luma, hondatuta ez dagoela ikusteko. Ez erabili luma hondatuta badago.
- Egiaztatu luma (kartutxoa), medikamentua gardena dela eta partikularik ez duela ikusteko. Ez erabili kartutxoan botika partikuladuna edo uherra duen luma bat.
- Ziurtatu luma egokia duzula, kontzentrazio zuzena duena.
- Egiaztatu lumaren etiketaren iraungitze-data.




ORRATZA FINKATZEA

GARRANTZITSUA:

- Erabili beti orratz berri bat injekzio bakoitzerako.
- Erabili soilik lumarekin batera ematen diren erabilera bakarreko click-on orratzak.

2. urratsa:

- Kendu lumaren estalkia.





3. urratsa:

- Kendu orratzaren babesteko xafla.



4. urratsa:

- Orratza ahokatu edo sartu.
- Klik bat entzun edo sentituko duzu orratza modu seguruan ahokatuta dagoenean.
- Orratza ere kiribildu ahalko duzu. Erresistentzia txiki bat sentitzen duzunean, modu seguruan ahokatuta dagoen seinalea da.



5. urratsa:

- Kendu orratzaren kanpoko babes-estalkia.
- Ez bota orratzaren kanpoko estalkia. Medikamentua injektatu ondoren orratza botatzeko beharko duzu.



6. urratsa:


- Kendu orratzaren barruko estalkia eta bota.



PRESTAKUNTZA


7. urratsa:

- Biratu dosi-botoia erloju-orratzen noranzkoan, tanta baten ikurra dosi-adierazlearekin lerrokatu arte.
- Prestaketa-dosi okerra markatzen baduzu, gorantz zein beherantz zuzendu daiteke, sendagairik galdu gabe, dosi-botoia edozein norabidetan biratuz, tanta baten ikurra dosi-adierazlearekin lerrokatu arte.



8. urratsa:

- Biratu dosi-botoia erloju-orratzen noranzkoan, agindutako dosia dosia bistartzeko leihoan dosi-adierazlearekin lerrokatu arte.
- Dosia gorantz zein beherantz zuzendu daiteke, sendagairik galdu gabe, dosi-botoia edozein norabidetan biratuz, dosi egokia dosi-adierazlearekin lerrokatu arte.
- Ez sakatu injekzio-botoia dosi bat markatzen ari zarenean, sendagairik gal ez dadin.





DOSI-BANATZEA

- Baliteke luma bat baino gehiago behar izatea agindutako dosia osatzeko.
- Dosi osoa markatzea lortzen ez baduzu, horrek esan nahi du luman ez dagoela botika nahikorik. Dosi bi injekzioan banatu beharko da, edo luma bota, eta beste bat erabili injekziorako.


DOSIAREN INJEKZIOA

GARRANTZITSUA:

- Ez erabili luma medikamentuak partikulak baditu edo uhertuta badago.
- Sendagai hori injekzio bidez eman behar da, larruazalaren azpian (larruazalpekoa), urdailaren eremuan (abdomena).
- Injekzio-eremu berri bat erabili injekzio bakoitzerako, larruazalean erreakzioak izateko arriskua murrizteko, hala nola gorritasuna eta narritadura.
- Ez injektatu narritatuta (sentikor) dagoen eremu batean, ubeldurak, gorrituak, gogortasunak, orbainak edo ildaskak dituen eremu batean.

9. eta 10. urratsak:

- Garbitu larruazala isipu alkoholdun bat erabiliz injektatu behar duzun lekuan, garbitzeko. Ez ukitu berriro eremu hori injekzioa eman aurretik.
- Eutsi lumari, injekzioan dosiak bistartzeko leihoa ikusteko moduan egon dadin.
- Atximur egin larruazalari, eta zuzenean sartu orratza, osasun-arloko profesionalak erakutsi bezala. Oraindik ez ukitu injekzio-botoia.



- Orratza sartu ondoren, jarri hatz lodia injekzio-botoian.
- Sakatu injekzio-botoia amaieraraino, eta estututa eutsi.
- Jarraitu injekzio-botoia sakatzen, eta dosi-adierazlearen linean "0" zenbakia ikusten duzunean, itxaron 10 segundo eta 10era arte poliki zenbatu. Horrek ziurtatuko du zure dosi osoa jasoko duzula.

OHARRA:


- Ez okertu luma, ez injekzioan, ez orratza larruazaletik kentzean.
- Lumaren inklinazioaren ondorioz, orratza tolestu edo hautsi egin daiteke.
- Orratz hautsi bat gorputzean edo larruazalaren azpian tratatuta geratzen bada, bilatu berehala osasun-laguntza.



ORRATZA BOTA

11. urratsa:

- Jarri berriro orratzaren kanpoko estalkia kontu handiz, bultzada irmo bat emanda (A).
- Orratza erloju-orratzen kontrako noranzkoan atera, lumatik kentzeko (B+C).
- Kontu handiz baztertu erabilitako orratza.



OHARRA:

- Orratza beti kendu erabili ondoren. Orratzak erabilera bakarrerako dira.
- Ez gorde luma orratza sartuta duzula.

ESTALKIA LUMAN BERRIZ JARRI

12. urratsa:

- Jarri berriro lumaren estalkia tinko, injekzioen artean babesteko.



OHARRA:

- Lumaren estalkia ez da ahokatuko orratza finkatuta badago.
- Dosi bat bi injekziotan banatu behar bada, bota luma hutsik dagoenean.
- Agindutako dosi oso emateko luma berri bat erabiliko baduzu, dosia bi injekziotan banatu beharrean, bota luma dosi oso baterako botika nahikoa ez dagoenean.
- Lumaren estalkia jarrita eduki, erabiltzen ari ez zarenean.

BILTEGIRATZEA

- Gorde beti luma estalkia jarrita eta orratzik gabe.
- Ez erabili luma iraungitze-dataren ondoren (CAD), lumaren etiketan inprimatuta dagoena.
- Ez gorde luma muturreko tenperaturetan, eguzki-argia zuzenean jo dezakeen eremuetan edo oso baldintza hotzetan, hala nola auto batean edo izozkailu batean.
- Gorde luma adingabeen eta luma erabiltzen trebatua izan ez den edozein pertsonaren irismenetik kanpo.



INFORMAZIO GARRANTZITSUA

- Aurrez kargatutako REKOVELLE ® eta orratzak pertsona bakar batek erabiltzeko dira, eta ez dira besteekin partekatu behar.
- Erabili luma soioik agindu zaizun mediku-egoerarako eta zure osasun-profesionalak irakatsi dizun bezala.
- Itsua bazara edo ikusmen eskasa baduzu eta lumako dosi-eskala irakurri ezin baduzu, ez erabili luma hau laguntzarik gabe. Eskatu laguntza ikusmen ona duen eta luma erabiltzen trebatuta dagoen pertsona bati.
- Galderarik baduzu, jarri harremanetan zure osasun-profesionalarekin.